



DANI BLANCO

Oier Araolaza

DANTZARIA ♦

Ongi etorri Dantzerti!

IRAILEAN irekiko ditu atek Dantzertik, Euskadiko Arte Dramatiko eta Dantza Goi Mailako Eskolak. Dantzari eta antzerkilariak pozik gaude, ez zaigu antzematen, baina pozik gaude.

Orain hamar urte inguru sortu zen arte eszenikoen goi-mailako eskolaren aldeko plataforma. Hamar urteotan, aldarrikapenarekin batera sektorearen eza-gutza eta eskarmentua erakundeen eskura jarri du plataformak. Hori gabe ez dut uste Dantzerti martxan jarriko zenik. Plataforma izan da akuilua eta heldulekua, egitasmoa bizirik mantendu duena politikariek beste lehentasun batzuk zituztenean eta erakundeek bide egiten lagundu duena ibilbide osoan. Orain, proiektua azken txanpan sartu denean, Jaurlaritzak dagoeneko plataformaren beharrik ez duela pentsatu du eta bazterreru utzi du.

Ikasketa planen zirriborroa plataformako kideei prestatzeko eskatu, hauek presazko lanak dohain egin, eta ondoren, kortesiazko gutxieneko erantzuna eman gabe Madrilgo dantza ikasketen kopiak diruditenak baliatu ditu Hezkuntza Sailak. Irakasleen hautaketarako, curriculumaz gain aurrez aurreko frogak egitea eskatzen zuen plataformak, teoriko onak izateak ez baitu bermatzen eszenaren ezagutza. Ez da hala

izango, irakasleei ez zaie aurrez aurreko probarik egingo. Matrikula partziala egiteko aukera eskatu zen, lanean dihardutenek ikasketak egiteko aukera izan dezaten. Hori ere ez da onartu.

Munduan izango dira mila ikastetxe goi-mailako dantza ikasketak egiteko aukera ematen dutenak. Baina mundu osoan ez dago eskola bat ere euskal dantza ikasteko aukera ematen duenik. Dantzertik ere ez du aukera hori emango, lehen txanpan behintzat, euskal dantza ikasteko aukerarik ez da izango bertan.

Dantzerti Bilbon egingo da. Euskal Hiriarena gezurra zen. Durango edo Tolosa ez dira Euskal Hiria. Euskal Hiria Bilbo da. Baldintza desegokietan eta garestiago aterako da, baina Bilbon. Musikarako egin zen Arriaga kon-

tserbatorioa dantzarako eta antzerkirako egokitu behar da orain. Traketsa izango da egokitzapena, eta gainera ez da denentzat tokirik izango. Baziren aukera hobeak, badira azpiegitura osoa, antzokia barne, prest duten ikastetxeak, baina ez, ez daude Bilbon, eta eskola Bilbon egin behar zen, ez dakit nork, noiz eta zergatik erabakita.

Euskal antzerkiak eta dantzak bazuen eskolaren premia. Ez zaigu antzematen, baina pozik gaude. Ongi etorri Dantzerti! ■

Dantzerti Bilbon egingo da. Euskal Hiriarena gezurra zen. Durango edo Tolosa ez dira Euskal Hiria. Euskal Hiria Bilbo da. Baldintza desegokietan eta garestiago aterako da, baina Bilbon

JULE GOIKOETXEA



Kattalin Miner



KAZETARIA

Lan (erre)produktiboa

FEMINISMOETATIK sarri aldarrikatzen dugu, lan erreproduktiboa balioan jarri behar dela, gutxienez eta sikiera, produktiboa adina. Jendartean esan ohi da, lan produktiboa dela bizirauteko behar dugun hori, hau da, diru truk egiten dena, estatua emango diguna, beraz esfera publikoan jazozen dena, errekonozimendua zor zaiona, eta maskulinoa dena, osoki. Eta ez ordea, erreproduktiboa, hau da, zaintza lana, erditzearena, janaria prestatzearena, beharrak antolatzearena... femeninoa eta isildua.

Eta ulertzen badut ere banaketa kontzeptual hori, gero eta konbentzimendu

handiagoa dut kiratsa dariola. Ulertu baita, krisi honen magalean, lan produktibo horiek guztiak amaituta ere, erreproduktibo ziren horiekin biziraun dugula misterioski. Ez ote da finean, erreproduktiboa zena, benetan produktiboa? Hain zuzen, bizitza bera produzitu eta mantentzen duena? Eta erreproduktiboa, sistema heterokapitalista honek biziraun dezan erreproduktio mekanikoenaren bidez egiten dena? Soldatapeko esklabotzan mantendu gaituena, nork dakigu noren mesedetan?

Ez al da garaia, behin Valerie Solanasek esan bezala, generoen tasunak irauli gisan, lanei ere bere izenez deitzekoa? ■